

# GAUAREN AURKAKO BORROKA

## (eta III)

Alfontso Mujika

### ARGIZTAPEN ELEKTRIKOAREN AROA

Aurreko bi artikuluetan argiztapen artifizialaren historian murgilduta ibili eta XIX. mendearren azken laurdenean gelditu ginen, gas-lanparetan izandako hobekuntzak aztertutik. Harez gerotzik argiztapen elektrikoaren aroa hasi zen; gure egunetara arte iritsi dena hain zuen. Artikulu honetan, aro berri garrantzitsu honen gorabehera nagusiak ezagutuko ditugu.

### LANPARA ELEKTRIKOAREN HASTAPENAK


XIX. mendearren lehenengo erdian hainbat ikertzailek elektrozitatemetik argia lortzera bideratu zituzten beren ahaleginak. Sir Humphry Davy ingeles fisikaria izan zen hori lortu zuen lehenengoa. 1810.ean bateria bateko bi poloak lotu zituen elkarren ondoan eta muturrez mutur, horizontalean jarritako egurrikatzezko bi barratxoren bidez. Horrela arku voltaiko handi bat sortu zuen pixkanaka-pixkanaka erretzen ziren ikatzezko barren artean, argi zuria emanet. Horrela jaio zen argi elektrikoa.

Gas batean, airean kasu, dauden bi elektrodoren arteko distantzia korronte elektrikoak zeharkatzen

duenean sortzen den argi-erradiazioari deritzo arku voltaikoa. Davyk arku izena eman zion, airearen goranzko korronteak argi-xingolari arku-itxura ematen ziolako. Arku-lanparetan, elektrodoak dira nagusiki goritzean argi-erradiazioa sortzen dutenak, arkuak ia erradiaziorik sortzen ez duelarik.

Hala ere, Davyren aurkikuntzak ez zuen ondorio praktikorik ekarri eta 30 urtez laborategiko esperimendu bitxi eta garestia baino ez zen izan. Izen ere, bateria kimikotiko energia elektrikoa erabili behar zen arkua sortzeko; dinamoa artean asmatu gabe bait zegoen.

1850.etik aurrera hobekuntza nabariak gertatu ziren arku-lanparetan eta dinamoetan. Adibidez, 1858.ean, Faraday fisikari handiaren zuzendaritzapean, arku voltaikoz sortutako argi-izpiek Mantxako kanalean barrena barreiatu ziren South Foreland eta Dungeness-eko argi-dorreetatik. Geroago, 1876.ean, Paul Jabloneckoff fisikari errusiarra kandela-forma zeukan arku voltaikoa asmatu zuen; beirazko tutu baten barnean sartuta zegoena. Jabloneckoff kandela txikia zen eta etxe barneko argiztapenerako erabiltzen hasi zen, baina oso esperientzia mugatua izan zen. Garai horretan bertan, Estatu Batuetan dinamo berriak plazaratu ziren eta haiei esker arku-lanparak



#### Goritasunezko lanpara modernoa:

- 1.- Gas-atmosfera
- 2.- Wolframiozko harizpia (espiral bikoitzeo erakoa)
- 3.- Harizpiarentzako euskarriak
- 4.- Korronte-sarrera
- 5.- Beirazko zurtoina
- 6.- Beirazko ampulua
- 7.- Kaskilo hariztatua
- 8.- Perla
- 9.- Hagatxoa



Espiral bakuneko harizpia



Espiral bikoitzeo harizpia

erabiltzen hasi ziren hainbat tokitan kale-argiztapenerako. Halaber, 1880.ean Alemaniako Siemens etxeko injineru batek arku differentzialeko lanpara asmatu zuen eta kale eta plazak argiztatzezko erabili zen Alemaniako zenbait hiritan.

Dena den, arkuaren tentsioaren erregulazio automatikoa garestia

eta konplexua zen eta horregatik fabrikatzaileek beste sistemetara jo zuten; goritasunezko lanparetara hain zuen.

## GORITASUNEZKO LANPARAK

Korronte elektrikoaren iragatenaren eraginez goritzen diren harizpiak erabiliz argia sorterazteko ideia XIX. mendearen erdialdean hasi zen garatzen. Hainbat ikerlari saiatu zen goritasunez argia sortzen. Guztien artean Sir Joseph Wilson Swan kimikari ingelesa nabarmendu zen. 1860. inguruan hasi zen laborategi-entseiuak egiten. Hutsa egin zaion tutu baten barnean ikatzezko harizpi bat ezarri zuen burdinarizko bi elektrodo artean eta korronte elektrikoa iragan erazten

zuen harizpian barrena berau goritu arte. Hainbat hobekuntza ondoren, 1878.ean goritasunezko lanpara aurkeztu zuen Newcastle-Upon-Tyne-ko kimikari-elkartean.

Hala ere, ez da Swan goritasunezko lanpara elektrikoaren asmatzaile bezala historian urrezko tokia daukana; Thomas Alva Edison amerikarrak baizik, denok dakigunez, eta merezimendu osoz gainera. Izan ere, bonbila elektrikoa laborategitik plazara eta etxe guztietaera eraman zuena Edison izan bait zen. Hasiera-hasieratik ulertu zuen Edisonek bonbila elektrikoaren gakoa harizpian zegoela. 13 hilabetez etengabe probatu zituen platino eta iridiozko harizpiak, baina oso garestiak izateaz gainera, argi-ahalmen txikia zuten zurgatutako energia elektrikoaren aldean eta, gainera, harizpia aise urtzen zen (erre alegia) korronearen intentsitatearen gorabehera txikien eraginez, metal hauen urtze-puntu eta goritasun-puntu oso gertru bait daude. Horregatik, metalak baztertu eta ikatzeko materialein probak egiten hasi zen; ikatzaren argi-igorpenaren ahalmena handiagoa izan eta korroneak sorterazten duen tenperatura handiak hobeto jasaten bait ditu urtu gabe. Hainbat entseiu ondoren, josteko hari arrunt bat (kotoizko) erabili zuen, ikaztu ondoren, harizpia egiteko. 1879.eko urriaren 21ean aurkeztu zuen lehenengo al-diz jendaurrean berre bonbila elektrikoa New Yorkeko Menlo Park auzoan. Lehenengo goritasunezko lanpara hark 48 ordu inguruko bizitza zuen eta haren argi-efizientzia 1,4 lumeneko zen zurgatutako energia elektrikoaren watteko.

## Munduko bonbilarik handiena

1954.ean Edisonen lehenengo bonbilarren LXXV. urteurrena zela eta, New Yorkeko Rockefeller Plazaren inguruan jende ugari bildu zen iluntzean. Bonbila erraldoi bat zegoen plazan, Menlo Parkeko Edisonen laborategian 1879.ean pitzu zen bonbila haren omenez eraikia.

Pitzu zutenean ahozabalik gelditu zen jendetza. Ikaragarria zen benetan: 75.000 watteko potentzia zeukan eta 1879.eko bere aitzindari hark baino 8.000 aldiz argi-fluxu handiagoa igortzen zuen.

Lanpara haren arrakastak bultzatuta, hamaika proba egin zituen ikatzezko materialein, azkenik material egokia aurkitu arte: banbu-zuntza. Biografoek diotenez, 16.000 entseiu desberdin egin zituen Edisonek banbu-mota desberdinak eta harizpi-lodiera desberdinak erabiliz. Ondorioak ere ikaragarriak izan ziren: hilabete gutxiren buruan, 48tik 600era luzatu zuen bonbilarren iraupena eta argi-errendimendua laukoiztu egin zuen. Argiztapen elektrikoa errealtitate bihurtu zuen eta aro berriari hasiera eman zion. Harez geroztik 110 urte baino ez dira igaro.

## LANPARA ELEKTRIKOAREN GARAPENA

Handi-mandika, bi aldi bereiz daitezke lanpara elektrikoaren garapenaren historian: lehenengoa 1879.etik 1930.erarteko da eta bigarreña 1930.etik gaur artekoa. Iku ditzagun bi aldiok.


*1879-1930: Goritasunezko lanpararen garapena*

1879-1914 bitartean, lanpararen bihotzaren, harizpiaren, eraginkortasuna handitzea izan zen ikertzai-leen helbururik behinena. Bide horretan, lehenengo hobekuntza kotoizko haritik banbu-zuntzezko harira pasatzea izan zen, lehenago aipatu bezala. Ondoren, ikatza baztertu eta metal erregogorrak erabiltzen hasi ziren: osmioa 1898.ean, wolframio estrudatua 1907.ean eta wolframio kaltzinatu edo sinterizatu eta teinkatua 1911.ean. Metalzko harizpiek badute abantaila bat




Goritasunezko lanpara XIX. mendearren amaieran plazaratu zen eta azkar zabaldu zen mundu osora

MERLIN GERIN



*Ornamenduzko argiztapen artistikoan barra-barra erabiltzen dira oraindik goritasunezko lanparak; eguberrietan kaleak eta merkatalguneak apaintzeko adibidez. Argazkian, Londreseko Harrods erostetxe ospetsua argiz jantzita ageri da.*



*Gaur egun era askotako goritasunezko lanparak daude merkatuan, bakoitzak erabilpen-eremu zehatz bat duelarik.*

### Zertan dautza "Lanpara halogenoak"?

Wolframio-halogeno lanparen (goritasunezko lanpara halogenodunak izena ere ematen zaie, edo, kaleko hizkeran, lanpara halogenoak) funtzionamendua ondokoak da:

Lanpara barnean dauden gas geldoei halogenoak eransten zaizkie (iodoa edo bromoa, hariziaren temperaturaren arabera). Ondorioz, hariziaren erregerazio-ziklo kimiko bat sortzen da, harizpitik lurrindutako wolframioa harizpira itzultzen delarik. Horrela, lurrindutako wolframioa ez da bonbilaren beiran metatzen eta bonbila ez da belzten, ohizko goritasunezko lanparetan gertatzen den bezala.


- Hauxe da wolframioaren erregerazio-zikloa:
- 1- Harizpia berotutakoan, wolframioa lurrindu egiten da. Wolframio-atomoak bonbilaren paretetarantz abiatzen dira.
  - 2- Paretaren inguruan, temperatura 300 eta 600 °C bitarteko da. Wolframio-atomoak halogenoarekin konbinatzen dira, molekulak sortuz.
  - 3- Molekula hauek konbekzio-higidurak jasaten dituzte bonbila barruan eta harizpira iristen dira.
  - 4- Harizpira iristean, beronen temperatura handia dela kausa (3.000 °C), molekula disoziatu egiten da, wolframio-atomoak emanet batetik (hariziaren gainean metatuko direnak) eta halogeno-atomoak emanet bestetik. Hauek, berriz ere beste wolframio-atomoekin konbinatuko dira zikloari hasiera emanet.

Hain temperatura handiak jasan ahal izateko, koartzozko bonbilak erabiltzen dira (silizio hutsezko kristala), erresistentzia handiagoa izan eta ezin leher daitezkeelako (lanpara hauei ez zaie hatzamarrez heldu behar, azalean utzitako koipe-arrastorik txikienak koartzoa alteratu egin dezakeelako. Hori gertatzen denean ilununeak agertzen dira bonbilaren azalean, desbeiratzearen seinale). Horregatik, bonbila eskuaz ukituz gero, alkoholetan bustitako zapizatez behar da garbitu).

## Zer da lanpararen argi-efizientzia edo argi-errendimendua?

Argi-iturri guzietan, beste energi mota baten eraldakuntzaz lortzen da argi-energia. Kandelaren argia, adibidez, argizagiaren materia erretzean lortzen den energia kimikoaren ondorioa da eta lanpara elektrikoaren argia, lanparak zurgatzen duen energia elektrikoaren eraldakuntzaz lortzen da. Baina zurgatzen den energia guztia ez da argi-energia bihurtzen.

Lanpara elektrikoaren kasuan, zurgatutako energia elektrikoaren zati bat bero bihurtzen da zuzenean (lanpara berotu egiten da), beste zati bat energia erradiatziale bihurtzen da (uhin elektromagnetikoen bidez igortzen dena) eta beronen zati txiki bat da argi-energia, hau da, giza begian argi-sentsazioa eragiten duten 350 mm-etik 760 mm-era bitarteko uhin-luzerak.



Argi-fluxua\* lumenetan neurten da eta zurgatutako potentzia wattetan. Beraz, lanpararen argi-efizientzia, ematen duen argi-fluxua eta lanparak (eta gailu lagunzaileak, balego) zurgatzen duen potentzia elektrikoaren arteko erlazioa da. lm/W-ean neurten da.

Argi-efizientzia zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta merkeagoa izango da argi-iturri hori. Hona hemen zenbait lanpara-motaren argi-efizientzia taula batean bildurik.

Goritasunezko lanpara:	9-19	lm/W
Lanpara halogenoa:	20-33	"
Tutu fluoreszenteak:	35-80	"
Goi-presioko merkurio-lurrinezkoak:	55-60	"
Behe-presioko sodio-lurrinezkoak:	140-180	"
Goi-presioko sodio-lurrinezkoak:	90-140	"
Halogenuro metalikozkoak:	80-95	"

Oharra: Taulan ageri denez, lanpara-mota bakoitzak ez dauka balio bakar bat argi-efizientziarako; balio-sorta bat baizik, lanpararen potentzia izendatuaren arabera aldatzen bait da (Potentzia izendatua zenbat eta handiagoa, hainbat eta handiagoa izan ohi da argi-efizientzia).

\*Argi-fluxua potentzia izanik, wattetan neur liteke, baina praktikan ez da unitate hori erabiltzen. Gainera, lanpararen itxurazko argi-potentzia, hau da, *Energia elektrikoa - (berokuntzaz galduen potentzia + fluxu erradiatziale ez-ikuskorra)* ez da argi-potentzia efikaza, giza begiaren sentikortasuna desberdina bait da uhin-luzera bakotzerako. Beraz, lanpararen erradiazio ikuskorraen banaketaren kurba (uhin-luzera desberdinatan) eta giza begiaren sentikortasun-faktorea (uhin-luzera bakotzarekiko) kombinatzuz lortzen da argi-potentzia efikaza, argi-wattetan neurten dena. Dena den, argi-watt unitatea ez da erabiltzen; lumena baizik: 1 argi-watt = 650 lumen

ikatzaren aldean: beraien erresistentzia elektrikoa handiagotu egiten da tenperatura handiagotu ahala. Beraz, autorregulatu egiten dira. 1914.ean harizpiaren forma aldatzen. Ordurarteko hari zuzena zen eta haren ordez espiral bakunaren erakoa erabili zen.

Harizpitik abiatuz, harizpi inguru ere ikertu zuten. Tenperatura

igo ahala, harizpia goritzen hasten da eta kolorez aldatzen: hasieran gorri arrea eta gero eta argiagoa ondoren. Goritasun-puntura iritsita, tenperatura igotzearen ondorioz igortzen den argi-kopurua azkarra-go hazten da tenperatura igo erazteko zurgatzen den energia elektrikoa hazten dena baino. Beraz, harizpi goriaren tenperatura zenbat eta han-

dioga izan, hainbat eta handiagoa izango da lanpararen errendimendua. Horregatik, harizpitarako, urtze- edo lurrintze-tenperatura handia duten materialak soilik erabil daitezke. Eta erabiltzen diren metal guztiak oxidagarriak direnez, hutssean eduki behar dira. Beirazko tutuaren barnean gas edo gas-nauste kimikoki geldoak sartuz gero (argona, kriptona, etab.), gasak motel erazi egiten du harizpiaren materialaren lurrintze-abiadura. Honek, harizpiak tenperatura handia-goa onartuko dituela esan nahi du eta, ondorioz, argi-errendimendua ere handiagoa izango dela.

Hobekuntza guzti horiei esker, lanpararen iraupena 48tik 1.000 ordura luzatu zen eta argi-efizientzia 1,4etik 10era (lumen/wattetan) handitu. Geroago, 1934.ean, harizpiari espiral bikoitzaren forma emango zitzaison, argi-efizientzia 13 lm/W-eraino handiagotuz (hain zuzen ere gutxi gorabehera gaur eguneko ohizko goritasunezko lanparek, ohizko bonbilek, daukaten berdina).

Baina ez zen hor amaitu goritasunezko lanpararen historia. 60.eko hamarkadaren hasieran, wolframio-halogeno izeneko lanparak agertu ziren merkatuan. Lanpara berri hauekin argi-iturri kontzentratuak egin ziren, proiekziozko argiztapenerako oso egokiak (ibilgailutarako lanparak adibidez), eta argi-errendimendua ohizko lanpararena baino ia 2 aldiz handiagoa zen. Lanpara hauek izugarri hedatzen ari dira azken urteotan, dekorazioan barra-barra erabiltzen direlarik. Izan ere, argi "beroa" ematen dute, oso atsegina, argiztatzen dituen gauzen kolorea bizitu egiten dutelarik. Zeharkako argiztapenean erabiltzen denean argi goxoa lortzen da, itzalak ia desagerteraziz. Gainera, lanparek eta luminarieki dimentsio txikiak dituztenez erraz ezkuta daitezke edota dekorazioan integratu.

## 1930.eko gaur arte: deskargazko lanpararen garapena

Artikuluaren hasieran esan bezala, goritasunezko lanpara baino lehen erabili ziren deskargazko lanparak; arkuzko lanparak alegia. Baina deskarga elektrikoa argi-iturri bezala erabili ahal izateko, materialen erresistentzia eta ezaugarri bereziak ziren beharrezko eta ordu-

- 1.- Elektroi askea
- 2.- Nukleoaren inguruan biraka ari den elektroi baten eta elektroi aske baten arteko talka
- 3.- Berriz ere orbitara doan elektroia
- 4.- Erradiazio elektromagnetikoa


ko teknologiaz ezin eskura zitezkeen. Horregatik, deskargaren arloko tajuzko ikerketak ez ziren 20.eko urteetan arte baizik hasi. 1930.ean agertu ziren goi-presioko merkurio-lurrinezko lanparak eta 1932.ean behe-presioko sodo-lurrinezkoak. Eta lanpara fluoreszenteak ez ziren kaleratu 1940.era arte.

Lanpara-mota guzti hauen argi-efizientzia askoz handiagoa zen goritasuneko lanparena baino. Kolo-rear berriz, argi-kalitatea alegia, oso eskasa zen.


Hala ere, urtez urte hobekuntza handiak lortu dira deskargazko lanparetan, kolorean zein argi-errendimenduan. 50.eko hamarkadan beirazko tutu gogorra siliziozko tutuaz ordeztu zen eta hauts fluoreszenteaz estali ziren bonbilak. Gaur egun, goi-presioko merkurio-lurrinezko lanparen argi-efizientzia 60 lm/W inguru dabil eta behe-presioko sodo-lanparena 180 lm/W inguru. Etorkizunean 200 lm/W lortuko direla espero izatekoa da.

Tutu fluoreszentei dagokienean, 1936.ean garatu zirenetik hiru hobekuntza nagusi aipa daitezke:

- 1948.ean kaltzio eta estrontzio halofosfatozko hauts fluoreszenteak aurkitu ziren. Haiei esker, argi-efizientzia handiagoa eta argi-fluxua egonkor-tzea lortu zen.
- 1972.ean hauts fluoreszente urdin eta berdeak (magnesio aluminatoak) aurkitu ziren eta hauts gorriekin (itrio oxidoekin) konbinaturik, hiru bandatako gaineztapen fluoreszentea egin zen, horrela argi-efizientzia eta kolore-errendimendua nabarmenki hobetu zirelarik.
- 1978.ean, energia aurreztea helburu zela egindako iker-



*1930.ean agertu ziren  
merkatuan lehenengo  
deskarga-lanparak.  
Geroztik, berrikuntzak  
eta lanpara berriak eta  
eratorriak etengabe  
merkaturatzan ari dira.  
Hona hemen zenbait  
deskarga-lanpara.*



Goi-presioko  
merkurio-lurrinezko  
lanpara

Halogenuro  
metalikozko lanpara

Goi-presioko  
sodo-lurrinezko  
lanpara

Behe-presioko  
sodo-lurrinezko  
lanpara

## Zertan dautza deskargazko lanparak?

Gas baten barnean gertatutako deskarga elektrikoaz sortutako argiturriren taldea oso zabala da; tutu fluoreszenteak, merkurio-edo sodio-lurrinezko lanparak eta argiletrategietan erabiltzen diren neonezko lanparak sartzen dira nagusiki. Lanpara-mota batetik bestera asko aldatzen da funtzionamendua, igorritako argimota eta erabilpen-eremua eta ezin azalduko dugu hemen bakoitzaren xehetasuna, baina guztiak dute fenomeno bera oinarrian: korronte elektrikoaren gas batean barrena iragatea. Halaber, lanpara-mota guzti hauek badute beste ezaugarri amankomun bat: guztiak behar dute deskarga abiarazteko eta egonkortzeko gailu berezien laguntza.

### Funtzionamendua:

Demagun koartzko edo beirazko tutu bat daukagula eta tutuaren muturretan elektrodo bana ezarri dugula. Tutuan dagoen airea erauzi ondoren, gas edo lurrin metaliko bat sartuko dugu; kopuru txikia baina. Elektrodoen artean potentzial-diferentzia bat aplikatuz gero, halako balio batetik aurrera, gas edo lurrina osatzen duten atomoen zati bat disoziatu egingo da, batetik karga negatiboak (elektroiak) eta bestetik karga positiboak (ioiak) emanez. Elektroiak elektrodo positiborantz abiatuko dira eta negatiborantz ioiak. Horrela sortzen den korronte elektrikoari deskarga deritzo.

Baina atomo guztiak ez dira disoziatzen. Disoziatu gabeko atomo eta elektrodo positiborantz doazen elektroien artean talka gertatzen den bakoitzean, elektroi berriak askatzen dira atomoetatik talkaren eraginez. Elektroi berri hauetako batzuk anodorantz abiatuko dira gainerako elektroiekin batera, baina beste batzuk berriz ere asoziatu egingo dira beraiek lehen zeudeneko atomoekin. Talkaren ondorioz atomoaren orbitatik (edo energi mailatik) atera diren elektroiak -elektroi kitzikatuak-, lehen zeudeneko orbitara (edo energi mailara) itzultzen dira eta sobera duten energia uhin-luzera jakin bateko erradiazioa igorri askatzen dute. Fenomeno horri

*Orain dela urte gutxi plazaratu diren lanpara fluoreszente trinkoak, lehiakide gogorrak suertatu zaizkie goritasunezko lanparei*

luminiszentzia deritzo, edo, zehatzago esanda, elektroluminiszentzia.

Berau, gas eta lurrinek daukaten propietatea da. Ondokoan datza: karga elektrikoek kitzikatzen dituztenean erradiazio elektromagnetikoa, argia barne, igortzean.

Eskuarki, gasak isolatzaile dira, baina eroale bihurtzen dira ionizatzen direnean, horretarako gas bakoitzak daukan tentsio elektrikoaren balio kritiko bat (gasaren beraren eta tenperatura eta presioaren menpe dago balio kritiko hori eta baita tutuaren dimentsio eta geometriaren arabera ere) gainditu behar delarik. Tentsioaren balio horri isiosketa-edo abioto-tentsioa deritzo.

Deskargazko lanparek barne-erresistentzia negatiboak dute, goritasunezko lanparek ez bezala. Esan nahi bait da, lanpara zeharkatzen duen korrontea handiagotzen denean korronte horri eusteko behar den tentsio elektrikoa txikiagoa dela. Beraz, lanparak, piztu ondoren, ez du zurgatzen duen korrontea automugatzen. Honek, tentsio elektrikoa finko mantentzen bada, korrontea gero eta handiagoa izango dela esan nahi du, barne-zirkuitulaburra eraginez. Hortaz, beharrezkoa izango da zirkuitu elektrikoan korronte-mugatzailak ezartzea, hau da, elikatzaile induktiboak (erreaktantziak) edo sakabanatze magnetikozko elikatzaileak (transformadoreak), luminotekniako hizkeran balazta esaten zaienak.

Bi talde nagusitan banatzen dira deskargazko lanparak: elektroluminiscente eta fluorescente (fotoluminiscente) taldeetan. Lanpara luminiscenteek zuzenean erabiltzen dute gas edo metalezko lurrinetan egindako deskarga elektrikoak sorterazitako luminiszentzia. Talde honetakoak dira merkurio-lurrinezko eta sodio-



lurrinezko lanparak eta baita tutu fluoreszenteak (neonezko lanparak) ere.

Beste taldean lanpara fluoreszenteak daude (tutu fluoreszente ezagunak). Hauek, funtsean, behe-presioko merkurio-lurrin eta gas geldo baten atmosferan egindako deskarga elektrikozko lanparak dira; lanpara elektroluminiscenteak alegia.

Merkurioa behe-presioan dagoenez, merkurio-atomoek igortzen duten erradiazio gehiena ez da erradiazio ikuskorra; ultramorea baizik. Baina tutuaren barneko pareta substantzia mineral fluoreszentezko geruza mehe batez (fosforo-konposatu) estali da. Deskargaren eraginez sortutako erradiazio ultramoreek kitzikatu egiten dituzte tutuaren paretako materia fluoreszenteak. Hauek orduan, erradiazio ultramore erasotzaile baino uhin-luzera handiagoko erradiazioa igortzen dute, hots, erradiazio ikuskorra.

Erabilitako hauts fluoreszentearen komposizioaren arabera, zeinmahি koloretako argia lortzen da, argi zuriaren nahi adina ñabardura barne. Horixe da, hain zuzen, lanpara fluoreszentearen ezaugarriak garrantzitsuenetako bat: erabilpen jakin bati dagokion argi-kolore zehatzka beti aukeratu ahal izatea.



*Goi-presioko sodio-lurrinezko lanparen argi horia harrizko etxe, dorre eta gazteluak argiztatzen erruz erabiltzen da; harria dotoretu egiten bait dute. Argazkian, Pariseko Conciergerie eraikin ezaguna goi-presioko sodio-lurrinezko lanparazko proiektooreek argiztatu*

keten ondorioz, tutuaren diame-troa txikiagotu egin zen (26 mm berrietan eta 38 mm zaharretan), argi-errendimendua hobetuz.

Deskarga-lanparen garapena ez da hor amaitu. Aipatutako ildo-tik, lanpara-belaunaldi berriak ager-tu dira azken urteotan. Hona he-men:

Halogenuro metalikozko lanparak. 60.eko hamarkadaren hasieran merkaturatu ziren. Goi-presioko merkurio-lurrinezko lanparak dira, baina merkurioari hainbat metal eransten zaizkio ioduro moduan (sodioa, talioa, indioa). Deskargak kitzikatzen dituenean, argia igor-tzen dute zenbait uhin-luzera jakinetan, merkurioaren argi-espektroa aberastuz eta ondorioz argiaren kalitatea eta argi-errendimendua handiagotuz. Lanparak ez dira handiak eta potentzia txikikoak ere fabrikatzen hasi zirenez, barne-argiztapenean ere erabil daitezke.

Goi-presioko sodio-lurrinezko lanparak. Sodioa oso erasokorra da beirarekiko eta horregatik goi-presioko lanpara hauek ezin izan ziren deskarga-tutu egokia aurkitu arte egin. Aluminio oxido sinte-rizatuko tutuak erabiltzen dira gaur egun; sodioak ez bait dio erasotzen

eta tenperatura handiak jasan bait ditzake. Tutu barnera sodiozko amalgama bat sartzen da (sodio eta merkurioaren aleazioa), gas arraro batekin nahasirik, deskargaren abioari laguntzearren. Deskarga-tutua beira gogorrezko tutu baten barnean sartu eta honetan hutsa egiten da bero-dispersioa murriztu eta errendimendua handiagotzearen. Lanpara hauen argi-errendimendua 90 eta 140 lm/W bitarte-ko da, potentzia izendatuaren arabera. Honelako lanparak erruz erabiltzen dira kanpo-argiztape-nean, errepide, kale, ibilbide, kai, tunel, plaza etab. etan.

Kalean zoazela, kale-argiei begi-ratuta erraz jakingo duzu zerezkoak diren: argi zuria (eta apur bat urdina ere bai) bada, merkurio-lurrinezkoa da eta argi horia (urre kolorekoa) bada, sodio-lurrinezkoa.

Azkenik, orain hiruzpalau urte *sodio zurizko lanparak* agertu ziren merkatuan. Lanpara hauek argi-ka-litate handia ematen dute eta pot-entzia txikikoak soilik fabrikatzen dira, hau da, barne-argiztapenean erabiltzekoak dira (erakusleihotan, denda, museo etab. etan) salgaiak eta erakusgaiak nabarmen eratzeko.

Lanpara fluoreszente trinkoak. Goritasunezko lanparen dimen-

tsioak, gutxi gorabehera, dituzte-lako eman zaie izen hori. Duela 10 bat urte hasi ziren plazaratzen. Erreaktantzia eta isiogailua (ze-badorea) lanpararen karkasa berean daude eta ohizko goritasunezko lanparek erabiltzen duten lanpara-etxeen sar daitezke. Ez dira, este-tika aldetik, goritasunezko lanparak bezain politak, baina lau aldiz argi-fluxu handiagoa ematen dute haien baino, zurgatutako potentzia elektrikoa berdina izanik. Gaur egun gero eta gehiago ikusten dira goritasunezko lanparen ordez; ta-berna eta merkatal lokaletan batez ere.

### NORA DOA ARGIZTAPENAREN TEKNOLOGIA?

Azken urteetako joera nagusiak oinarritzko hiru erizpidetara bil daitezke: energia aurrezterta, lanpararen batezbesteko bizitza luza-tzera, eta dimentsioak txikiagotze-ra. Beraz, aurrerantzean joera na-gusi horiek iraungo dutela pentsatzeko da eta, aurkikuntza txundi-garrik gabe, etorkizuneko lanparak energia gutxiago zurgatuko du eta ordu gehiago biziko da. €